

AURREKONTU POLITIKA



EGOERA

Azken legegintzaldietan abian jarritako ekonomia- eta aurrekontu-politiken lehentasunak ez dira gauza izan zenbait arazo larri –pobrezia, jendarte-desberdintasuna, langabezia, jendarte-bazterkeria– konpontzeko eta susperraldi ekonomikoa bideratzeko; areago oraindik, arazo horien guztien etengabeko gorakada geldiarazten ere ez dute asmatu aurrekontu-politika horiek.

Defizita kontrolatu eta gastu publikoa murriztu beharrarekin obsesionatuta, aurrekontuek ez dute balio izan euskal herritarren premiei erantzuteko; aldiz, premia horiek erabili egin dira, murrizketen bitartez,

administrazio zentralaren agindu eta urgentziekin bat etortzeko.

Urkullu kabinetea eroso-eroso egon da egoera horretan, kanpo-aginduei men eginez politika ekonomikoa eta aurrekontuak bideratzean, eta, horrela, krisi- eta zalantza-garai honetan hain beharrezkoa den lidergo politikoari uko egin dio.

Bestetik, gobernua gorabehera, genero-ikuspegiak ez du presentziarik eduki edo gehienez ere presentzia eskasa izan du aurrekontu-proiektuetan.

HELBURUAK

Ezinbestezkoa da egoerari buelta ematea, eta gobernu sendo eta bultzatzaile bat ezartzea, lidergo publikoa gauzatuko duena eta ibilbide luzeko proposamen ausart eta askeak egingo dituen, egungo premia handiei ez ezik, gure jendarteak epe ertainera eta luzera ezarritako erronkei heltzea ere ahalbidetuko dutenak, baita horretarako mekanismo egokiak ezartzea ere.

Gure aurrekontu-politika, aldiz, baliabideen kudeaketaren arrazionalizazioan eta zorroztasunean, genero-ikuspegiaren, gardentasunean, eraginkortasunean, parte-hartzean eta egoera ekonomiko ankerren aurkako erresilientzian oinarrituko da, lehentasuna betiere pertsonengan jarritz.

Pertsonengan oinarrituta eraiki nahi ditugu aurrekontuak, pertsonak bidezko garapen ekonomiko eta iraunkorraren katalizatzaile izan daitezzen. Genero-ikuspegi baten arabera eraikitako aurrekontuak izango dira, eta genero-ikuspegi ohiko jardunbidea izango da erakunde guztietan.

Aldi berean, Gobernuak beste zenbait neurri hartuko ditu, besteak beste zerga-eredu berria, eta, horrekin batera, jendarte-inbertsioa poliki-poliki areagotuko da arlo horietan aurrekontu-proiektzio handiena duen Europako estandarerrantz aurrera egiteko bidean.

NEURRIAK

- 1** Subiranotasun Ekonomikorako Lehendakariordetza sortuko dugu, asmo handiko eta erabateko politika propio eta koherenteak garatzeko tresna guztiak poliki-poliki gureganatu beharra eztabaida eta ekintza politikoaren lehen lerrora ekartzeko, beharrezkoa den lidergo eta bultzada publikotik abiatuta. Besteak beste, finantza-, zerga- eta lan-eremuari buruzko proposamenak egingo ditu Lehendakariordetza horrek.
- 2** Zorpetze-politika propio bat diseinatu dugu, eta jarraian Estatuarekin negoziatu eta adostuko dugu politika hori, sindikatu- eta jendarte-eragileekin adostutako defizit-muga barne, gure jendarte- eta ekonomia-sarearen premia eta lehentasunei erantzuteko.
- 3** Proposamen orokor bat aurkeztuko dugu fiskalitate progresiboagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko, eta horrela, beharrezkoak diren jendarte-babes publikorako eta garapen ekonomikorako politika egokiak garatzeko dugun ahalmena areagotzeko
- 4** Proposamen bat egingo dugu euskaldunon aurrezkiak baliagarri izan daitezzen benetako ekonomia zuzenean bultzatzeko eta politika publiko guztiak sustatzeko, pertsonen zein kolektibo eta erakundeek ekarpenak ugalduz eta bermatuz.
- 5** Aurrekontuen lege-proiektuak eraikiko ditugu pertsonen eskubideak oinarritzat hartuta eta jendarte-eskubideei, bidezko ekonomia suspertzeari eta kalitatezko enpleguari lehentasuna emanez.
- 6** Lurralde Historikoen Legea aldatuko dugu atzemandako ahulezia eta bikoiztasunen arabera, eta horrela lortuko dugu erakunde bakoitzaren eskumenak argiago zehaztea, Herri-ikuspegi batetik abiatuta.
- 7** Lehendakaritza Sailaren barruan Aurrekontuko Efizientzia, Gardentasun eta Genero Ikuspegiko Zuzendaritza sortuko dugu. Besteak beste, aurrekontu-prozesuetan parte hartzeko mekanismoak diseinatu ditugu Zuzendaritza horren esparruan. Herritarrek, zuzenean parte hartuz, aurrekontu-ehuneko bat zertara bideratu erabakitzeko aukera izango dute, eta guk ehuneko hori zehaztu beharko dugu ezer baino lehen.

AIPATUTAKO NEURRIAK ABIARAZTEA.

Proposatzen ditugun neurriak eragin handikoak izaki, ahalik eta adostasunik handiena bilatuko dugu prozesu horietan parte aktiboa izan beharko luketen alderdi politiko, sindikatu eta jendarte-eragileen artean, guztiek ere neurri horiek negoziatzeko, erabakitzeko eta pixkana-pixkana abiarazteko protagonismoa hartu beharko dutelarik.

Aurrekontuko Efizientzia, Gardentasun eta Genero Ikuspegiko Zuzendaritzak honako helburu eta eginkizun hauek izango ditu:

Genero-ikuspegia hurrengo aurrekontuetan errealitate bihurtzeko neurriak bultzatzea.

Erakundeek arteko bikoiztasun eta desorekak aztertzea.

Publikoaren kudeaketaren eraginkortasuna handitzea, eskumenak gainjartzeko aukera eta horrek aurrekontuetan dauzkan ondorioak prebenituz.

Administrazioaren arlo guztietan mekanismo zorrotzagoak sartzeko aurrekontu-baliabideen erabilera ebaluatzeko.

Eskumenak banatzean eta aurrekontu-baliabideak bideratzean kontu handiz ibiltzea, gainjartzea eta bikoiztasunak saihesteko eta, horrela, baliabideetatik ahalik eta optimizaziorik eta efizientziarik handiena lortzeko.

Kudeaketa desegoki edo ilun samarrak detektatu, prebenitu eta kontrolatzeko tresnak garatu eta abiaraztea.

Aurrekontu-prozesuetan parte hartzeko mekanismoak diseinatzea. Herritarrek erabakiko dute, zuzenean parte hartuz, aurrekontu-ehuneko bat zertara bideratu, eta ehuneko hori zehaztea izango da mekanismo horien helburua.